

# Beti pantailari begira bizi al gara?

Teknologiak gaur egun gure bizitzako tarte ia guztiak harrapatuak ote dauzka? Zein kalte eta mesede ekarri digu teknologiak eta batez ere mugikorrek? Gai horren aitzakian, sekuentzia honetan ataza hauek egingo dituzu:

- Zein da zure esperientzia?: galdera irekiei erantzun.
- Elkarrizketa entzun ondoren, egiak eta gezurrak identifikatu
- Iritzi-artikuluari, falta dituen hitz egokiak txertatu
- **Eman zure iritzia idatziz:** web gune baterako lehen landutako artikuluari buruzko iritzi laburra idatzi.
- **Eztabaidatu taldean:** galdera irekiei erantzun.

# Hutsarteak: zein da zure esperientzia?

1. Gaur egun informazioak sobre-estimulatuta bizi gara eta askotan ez dugu asmatzen ezer egin gabe. Zuk gogoratzen duzu noiz egon zinen azken aldiz ezer egin gabe?

2. Mugikorrek gaur egun gauza askotarako erabiltzen ditugu. **Zuk zeure eguneroko errutinan zertarako erabiltzen duzu?**

- Whatssap-ak jaso eta bidaltzeko
- Gehienbat deiak egiteko
- Posta begiratu eta mezuak bidaltzeko
- Interneten nabigatzeko
- Sare sozialetan ibiltzeko
- Bideoak edo pelikulak jaitsi eta ikusteko.
- ... Besterik?

3. **Eta zein abantaila ikusten dizkiozu gaur egun mugikorrari?** ( jendearekin harremanetan jartzeko bide eroso da, informazioa asko eta azkar eskuratzeko modua, laneko zenbait gauza egiteko aukera, entretenigarri oso ona da...)

3. Entzungo duzun elkarrizketan hutsarteak desagertu egin direla aipatzen da. **Zer esan nahi ote du hutsarte hitzak?** (hurrengo ariketan hau egiaztatzeko aukera izango duzu

- Hutsarteak, hutsik sentitzen garen uneak dira.
- Hutsarteak ezer egin gabe gauden denbora-tarteak dira
- Hutsarteak gure bizitzan gertatzen diren hutsuneak dira.

# Hutsarteekin bizitzen badakigu?

Amaia Pavón, HUEZIKo Ikus-entzunezko Komunikazio-irakasleak bere ikasleei filme bateko lehen minutuetako montajea egiteko eskatu dienean ondorio bitxi bat atera du.

Entzun elkarrizketa eta entzuten duzun bitartean beheko baieztapenak egia edo gezur diren adierazi behar duzu. Entzun baino lehen, komeni da baieztapenak irakurtzea.



(hutsarteak\_mugikorrekmp3.mp3)

	EGIA	GEZURRA
Amaiaren iritziz, hutsarteetan bizitzen saiatu beharko genuke.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ezer egin gabe egon ezin hori gazteen artean bakarrik gertatzen da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Amaiaren ustez, oso konektatuta bizi gara, baina ez ditugu barne-gogoetak egiten.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Amaiak atera duen ondorioaren arabera gure bizitzako hutsarteak ez ditugu aprobetxatzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Anbulatorioetan ere haurrak askotan mugikorrek in ibiltzen dira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Izaten ditugun denbora huts horiek mugikorrek in bete ohi ditugu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hiri batzuetan, oinez gabiltzan bitartean, mugikorra erabiltzea debekatu dute.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

#### HIPOTESIA EGIAZTATU

Zein da hutsarte hitzaren esanahia? Orain lehen eman duzun erantzun bera emango al zenuke?

- Hutsarteak, hutsik sentitzen garen uneak dira.
- Hutsarteak ezer egin gabe gauden denbora-tarteak dira
- Hutsarteak gure bizitzan gertatzen diren hutsuneak dira.

## Hutsarteez hausnartzen: artikulua osatu

Amaia Pavonek artikulua hau idatzi zuen gure bitzitzako hutsarteez hausnarketa pizteko asmoz. Artikulua webgune [honetan](#) argitaratu zen.

Artikuluari zenbait hitz kendu dizkiogu. Txerta itzazu dagokien hutsunean. Ondoren, zuk ere gaiari buruz zure hausnarketa egiteko aukera izango duzu.

#### HUTSARTEAK DESAGERTU DIRA?

Ikus-entzunezko komunikazioko bigarren mailako ikasleekin hasi berri dugu ikasturtea, eta hasierako ariketen artean bidali nien honakoa: pelikula baten hasiera asmatu behar zuten. **(1)** honetako lanak eskatzea interesgarria iruditzen zait, batetik, ikasturte hasieran ikasleen maila ezagutzeko erabilgarriak direlako, eta bestetik, haien **(2)** proban jartzeko aitzakia aproposa direlako.

Oro har, teknologia oso presente dago haien (3) [redacted], eta horrekin batera, badago errealitatetik (4) [redacted] dagoen praktika bat: telefono mugikorraren erabilera (5) [redacted]. Zer pentsatua eman didate ikasleen lanek, eta nire eta ingurukoen (6) [redacted] aztertzen hasi naiz “zain” nagoen bitartean, eta ausartzen naiz esatera hutsarteak ez direla existitzen honezkero.

Internet mugikorretara iritsi denetik bizitzako (7) [redacted] txikienetan ere presente dago mugikorra: autobus-geltokian zain gaudela, hipermerkatuko ilaran gaudela, norbaiti itxoiten ari garela, oinez ere aritzen gara txateatzen; pentsa kontuak zer diren eta, New Jersey bezalako hirietan debekatu egin dute mugikorraren (8) [redacted] oinez zoazela.

Baina, zer egiten genuen lehen, teknologiak gure bizitzako tarte guztiak bete aurretik? Ezer egiteko ez genituen (9) [redacted] horiek desagertu dira, eta horiekin batera pentsatzeko, imajinatzeko eta amets egiteko geneuzkan momentutxoak. Akaso horixe da teknologiak duen alderdi ezkor bat eta gutxien aztertu dena: besteengandik hurbilago bizi garela, baina gugandik urrutiago. **Aukerak**

hutsarteetan

errutina

erabilera

ekintzak

oso hurbil

tartetxo

fikziozko lanetan

sormen-gaitasuna

Tankera

## Idatzi zure iritzia

Amaia Pavonek idatzitako artikulua irakurri duzunean, zure iritzia idaztea pentsatu duzu [www.sustatu.com](http://www.sustatu.com) web gunean. Behean, iritzia idazteko zenbait egitura-adibide dituzu. Iritzia idaztean, saiatu galdera hauei erantzuten. Jatorrizko artikulua [web gune](#) honetan daukazu.

1. Hutsarteak benetan desagertu egin direla uste duzu?
2. Mugikorrek gure/zure errutina txikienetan sartuta omen daude. Ados zaude?
3. Zer galdu edo irabazi dugu teknologia berrieekin? eta zehazki mugikorrekin?

**Iritzia emateko egitura eta adibideak**

**Uste dut /Garbi daukat** mugikorrek gure bizitzako espazio asko jan dituela. **Nire ustez** kalte handia egin dute.

**Esango nuke** mugikorrek pertsonen arteko komunikazioari kalte handia egin diotela.

**Ez dut uste/ Ez zait iruditzen** mugikorrek pertsonari kalte egin dionik. **Beti pentsatu izan dut** teknologia berriak arriskutsuak izan daitezkeela.



Idatzi artikuluari buruzko iritzi laburra (gehienez 8 lerro). Gogoratu

[www.sustatu.com](http://www.sustatu.com) web gunera bidaltzeko izango dela. **Ikus eredu**an klik eginda iritzi-adibide bat daukazu.

## Mugikorrekin kalean ibiltzea debekatua?

Amaiak bere artikuluan albiste bitxi bat aipatu du: Estatu Batuetako New Jersey hirian debekatu egin dute, oinez zoazela, mugikorrarekin ibiltzea, arriksutsua izan daitekeela aurreikusiz. Albiste hain bitxia ote da? Orain taldeka jarri eta honetaz hitz egiteko aukera izango duzu. Albiste ikusteko klik egin [hemen](#)



### Eztabaidatu taldekoekin

1. Kalean zoazela gertatu zaizu norbaitekin estropezu egitea mugikorrarekin doalako? Mugikorrekin puntu horretara iritsi ote gara?

2. Mugikorrek kontuz erabiltzen saiatu beharko genuke. Horretarako neurri egokia ikusten duzu debekatzea edo isun bat jartzea? Eman arrazoiak. Zuk zein beste neurririk jarriko zenuke?

3. Mugikorrek kalean erabiltzeagatik traba eta istripu asko gertatu izan dira. Irakurri bestela egunkarietan agertu izan diren albiste hauek. Komentatu itzazu zure albokoarekin.

- Oinezko bati, mugikorrarekin badabil, edo musika entzuten, istripua izateko arriskua % 30- % 40 bitartean handituko zaio.
- Tren batek mutil gazte argeliar bat harrapatu zuen, mutil hori bere mugikorrean musika entzuten ari ziren bitartean.
- Birginian (Estatu Batuak) espaloian zoazela mezuak idazten aritzeagatik 80 dolarreko isuna jaso dezakezu.
- Gidatzean, telefono mugikorretik hitz egiteak zirkulazio-istripua izateko arriskua ia bikoiztu dezake.
- Madrilen, gazte bati bere gida-baimenean 3 puntu kendu zizkieten bizikletan zihoala mugikorra erabiltzeagatik.

4. Ezagutzen duzu antzeko beste albisterik? Kontatu taldekoei.



## Zuzenketa-orria

### Hutsarteekin bizitzen badakigu?

	EGIAGEA	EZURRA
Amaiaren iritziak, hutsarteetan bizitzen saiatu beharko genuke.	✓	✗
Ezer egin gabe egon ezin hori gazteen artean bakarrik gertatzen da.	✗	✓
Amaiaren ustez, oso konektatuta bizi gara, baina ez ditugu barne-gogoetak egiten.	✓	✗
Amaiak atera duen ondorioaren arabera gure bizitzako hutsarteak ez ditugu aprobetxatzen.	✗	✓
Anbulatorioetan ere haurrak askotan mugikorrek inbilitzen dira.	✗	✓
Izaten ditugun denbora huts horiek mugikorrarekin bete ohi ditugu.	✓	✗
Hiri batzuetan, oinez gabiltzan bitartean, mugikorra erabiltzea debekatu dute.	✓	✗

## Hutsarteez hausnartzen: artikulua osatu

### HUTSARTEAK DESAGERTU DIRA?

Ikus-entzunezko komunikazioko bigarren mailako ikasleekin hasi berri dugu ikasturtea, eta hasierako ariketen artean bidali nien honakoa: pelikula baten hasiera asmatu behar zuten. (Tankera) honetako lanak eskatzea interesgarria iruditzen zait, batetik, ikasturte hasieran ikasleen maila ezagutzeko erabilgarriak direlako, eta bestetik, haien (sormen-gaitasuna) proban jartzeko aitzakia aproposa direlako.



□ Oro har, teknologia oso presente dago haien (fikziozko lanetan), eta horrekin batera, badago errealitatetik (oso hurbil) dagoen praktika bat: telefono mugikorraren erabilera (hutsarteetan). Zer pentsatua eman didate ikasleen lanek, eta nire eta inguruko (ekintzak) aztertzen hasi naiz “zain” nagoen bitartean, eta ausartzen naiz esatera hutsarteak ez direla existitzen honezkero.

□ Internet mugikorretara iritsi denetik bizitzako (errutina) txikienetan ere presente dago mugikorra:

autobus-geltokian zain gaudela, hipermerkatuko ilaran gaudela, norbaiti itxoiten ari garela, oinez ere aritzen gara txateatzen; pentsa kontuak zer diren eta, New Jersey bezalako hirietan debekatu egin dute mugikorraren (erabilera) oinez zoazela.



Baina, zer egiten genuen lehen, teknologiak gure bizitzako tarte guztiak bete aurretik? Ezer egiteko ez genituen (tartetxo) horiek desagertu dira, eta horiekin batera pentsatzeko, imajinatzeko eta amets egiteko geneuzkan momentutxoak. Akaso horixe da teknologiak duen alderdi ezkor bat eta gutxien aztertu dena: besteengandik hurbilago bizi garela, baina gugandik urrutiago.

## Idatzi zure iritzia



Idatzi artikuluari buruzko iritzi laburra (gehienez 8 lerro). Gogoratu

[www.sustatu.com](http://www.sustatu.com) web gunera bidaltzeko izango dela. **Ikus ereduan** klik eginda iritzi-adibide bat daukazu.

(Gaur egun teknologiak kristoren abiadura hartu du, eta denok gabiltza beti pantailari begira, autobus-geltokian, etxean, lanean... Amaia Pavonek dioen moduan, nik uste dut mugikorra gure eguneroko errutinan oso sartua dagoela. Ez dakigu mugikorrik gabe bizitzen. Gainera, mugikorrak ordenagailu sofistikatuak bihurtu dira, eta denetarik egin dezakegu beraiekin: whatssap-ak bidali, korreoa begiratu, informazioa konpartitu.. Baina, iruditzen zait aurrez aurreko komunikazioa asko jan digula mugikorrak eta ikasi beharra daukagula pertsonekin aurrez aurre hitz egin eta ezer egin gabe egoten. Bestela jai dugu!)

## Transkripzioa

### Hutsarteekin bizitzen badakigu?

Esataria 1. Ba, Arian eta Alexander, entzun ondo, ze lan horixe jarri die Amaia Pavón, HUEZlko Ikus-entzunezko Komunikazio-irakasleak bere ikasleei, pelikula baten lehen minutuetako montajea egiteko eskatu die.

Esataria 2. Bai. Eta egindakoak ikusi dituenean ondorio batera heldu da Amaia, hutsarteak desagertu egin direla, jada ez dugula ezer egin bako (gabeko) tarterik gure bizitzan.

Esataria 1. Amaia Pavón, arratsalde on.

Amaia Pavón. Arratsalde on.

Esataria 1. Zuk noiz begiratu diozu mobilari azkenekoz?

Amaia Pavón. Ba uste dut orain dela bi minutu edo.

Esataria 1. Eta noiz egon zara azkenekoz ezer egin gabe? Ezer egin gabe ba...

Amaia Pavón. Baina ezer egin gabe, ezer egin gabe, eh!

Esataria 1. Um! Gaur goizean minutu pare batez egon naiz autobusaren zain, baina uste dut nahita egin dudala mugikorra ez begiratzearen ariketa hori. Ba, betiko moduan.

Esataria 1. Amaia, zu ikus-entzunezko bigarren mailako ikasleen irakasle zara, eskolak ematen dizkiezu eta euren lanak, ikasturte-hasierako lanak ikusi eta gero, ondorio horretara heldu zara: hutsarteak desagertu egin direla. Zer esan nahi duzu zehazki honekin, Amaia?

Amaia Pavón. Bai, beno, ez, ariketaren kontura, gainera librea zen ariketa, ez?; pelikula, beno, istorio bat asmatu behar zuten eta istorio horren hasierako lehenengo minutuak nola kontatuko zituzten ba azaltzea zen ariketaren helburua, ez? Eta konturatzen nintzen ba bideo guztietan agertzen zela norbait oinez, mugikorrari begira, norbait markesinan mugikorrari begira, norbait etxean ordenagailuari begira, eta pentsatzen hasi nintzen: joe, egia da, eske ez dago momentu bat ere geldirik gaudena, ez gaudena ezer egiten eta ez daukaguna mugikorra esku artean. Eta beno, horrek ba zer, pentsatzeko eman zidan eta, eta egia da konturatzen zarela ba hori, ba denbora huts horiek bete ditugula mugikorrarekin; mugikorra hartu eta begiratu whatshapean ea mezurik duzun, twitterren ea zer berri dauden, ba ez dakit. Bai. Bai. Mugikorrarekin.

Esataria 2. Duela hil batzuk esan zigun Felixek, gure kolaboratzaile batek orain ezeri begiratu gabe zerura begira dagoenak ematen duela, zuzenean, mistiko bat.

Amaia Pavón. Ba bai. Oso jende gutxi aurkituko dugu ja gora begira. Oinez gaudenean ere, jarri nuen artikuluan, hiri batzuetan debekatu dute oinez ibiltzen zaren bitartean mugikorra erabiltzea, jendea trabatu egiten delako kalean. Heldu gara puntu horretara arte, ez? Oinez ere mugikorrarekin joan behar gara whatsapeatzen. Bai.

Esataria 1. Hau zer da? Aspertzen ahaztu zaigula?

Amaia Pavón. Jo, ba ez dakit. Egia esan, ez dakit, baina aspertzeko puntura arte heldu barik ere badauzkagu beste gauza asko egin ditzakegunak, ez?, mugikorrari begira egon gabe. Ba da autokritika ere bai, ez? Esatearena, ba zergatik ez dugu irratia jartzen markesinan gaudenean, edo liburu bat irakurtzen edo... Oso, oso nabaria da.

Esataria 1. Hau hala ere Amaia, adin guztietara zabalduko zenuke edo gehiago ikusten duzu ikusten duzu gazteen artean, nerabeen artean?

Amaia Pavón. Ba hutsarteen kontua... Beno, ez dakit nik. Nik uste adin guztietan gertatzen dela ez?, ze ez dakit markesinakoa baden halakoa azterketa soziologiko txikitxo bat, ez, baina adin guztietako jendea egoten da markesinan zain, autobusari... Eta, eta denak daude mugikorrarekin.

Beste bat. Eta baita ere azkenean gizarte honek beste abiadura bat hartu duela, eta bizi gara oso azkar, eta orduan... Eta bat-batean bi minutu geldi zaude eta esaten duzu: "Ai, ama, ez nabil aprobetxatzen. Zertan nabil?" Eta mugikorra ateratzen duzu. Eta batzuetan denbora-galtze bat da. Baina ez dakigu besterik egiten. Eta gurekin gertatzen da eta umeekin ere gertatzen da. Ni medikura joaten nintzenean eserita egoten nintzen amaren ondoan, "murga" ematen nion eta parean neukan gizonari begiratzen nion, baina ez nuen ezer gehiago egiten. Gaur egun itxarongeletan jostailuak daude, orduan umeak ere ez daki ezer ez egiten, ez dakigu. Eta hori frustantea izan daiteke denborarekin.

Beste bat. Atzo esan ziguten: badakizue zenbat aldiz deskonektatzen dugun edo desblokeatzen dugun mobila?

Esataria 1. Zenbat aldiz?



Beste bat. Egunean? Ehun eta hamar aldiz.

Esataria 1. Beno, orduan tarteka, Amaia hutsarteetan bizitzeko saiakera egin beharko genuke, ez?

Amaia Pavón. Jo, nik uste dut baietz. Ez dakit bueltatu behar garen ba ez dakit, liburu... Bueltatu, beno...

Liburuetara jotzearen kontua edo irratira edo...

Esataria 1. Zeintzuk dira aukerak? Ze laguntza behar dugu Amaia. Zer egin dezakegu?

Amaia Pavón. Ez dakit, bakarrik, egon. Egon eta pentsatu. Uste dut., nik faltan botatzen ditut momentu horiek, ez?

Ez dakit, paseoan ateratzen naiz eta ariketa konsziente egin behar dut mugikorra ez ateratzeko. Ez ateratzeko irratirik, ezer. Eta esan: pentsatu, paseatu eta egon lasai. Ez da ezer gertatzen; bai. Ez da denbora galtze bat. Eta uste dut denbora galtze horren konplexua edo pixka bat kendu beharko genukeela, bestela, eske... Jartzen nuena, ez?, oso konektatuta bizi gara, bata bestearengandik asko dakigu baina gero gure barne-gogoetak eta egiten ditugu? Ez dakit; ohera sartzen gareneko momentu horretan ere mugikorrari begira gaude.

Esataria 1. Um!